# 2.2 GAIAREN LANKETA

## > Herriak dauka

### - Natura

#### • Deskribatu

**Helburuak**

– Adjektiboak erabiltzea.
– Adjektiboen esanahiaz jabetzea eta bakoitzari dagokion testuinguruan erabiltzea.

**Prozedura**

– Ume bakoitzari fitxa bat banatu; ezberdinak izan daitezela.
– Ume bakoitzari natura izendatzeko erabili ditugun irudi bat egokitu zaio.
– Adjektiboak erabiliz, egokitu zaien irudia deskribatu.
– Esaldiak egiten saiatu;
  - Ez daitezela izan adjektibo solteak.
  - Umeek esaldiak egiteko arazorik izanez gero, esaldi eredua arbelean idatzi: ur-jauzia oso polita da. Zaratatsua, alaia eta erakargarria ere bai.
  - Arbelean esaldi eredua idatzi aurretik, umeei saiatzen utzi.
– Ume bakoitzak ahoz idatzi duen esaldia ozen irakurri.
– Guztion artean irudia deskribatzeko adjektibo gehiago aurkitzen saiatu. Hiztegia erabili daiteke. Antonimoak ere erabil daitezke.